Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Ingurumen Saila
Donostiako Udala

# Ingurumeneko Kontseilu Sektoriala – 7. saioa
## Consejo Sectorial de Medio Ambiente – Sesión 7

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián |
| **Data, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2017ko martxoaren 14a**/ 14 de marzo de 2017<br>**Udalbatza Aretoa** /pleno<br>**18:30** / A las 18:30 horas |
| **Amaiera ordua**<br>Hora de finalización | **20:30 /** A las 20:30 horas |

## GAI ZERRRENDA:
## ORDEN DEL DÍA:

1. Aurreko bileraren akta onartzea
2. Gizarte Kontseiluari buruzko informazioa
3. Animaliei buruzko proposamenak
4. 2017. urterako planifikazioa
5. 2018. urteko aurrekontuetarako proposamenak
6. Eskariak eta galderak

1. Aprobación del acta de la última reunión
2. Información sobre el Consejo Social
3. Propuestas en relación a los animales
4. Planificación para el año 2017
5. Propuestas para los presupuestos de 2018
6. Ruegos y preguntas

## BILERAN PARTE HARTU DUTE:
## HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

| | |
|---|---|
| **KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA**<br>PRESIDENCIA DEL CONSEJO | **Gune Publikoetako, Ekologiako eta Festa Jardueretako zinegotzi ordezkaria**<br>Concejal delegado de Espacios Públicos, Ecología y Actividades Festivas |
| TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK<br>REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS | PSE m<br>EH BILDU<br>PP |

| | |
|---|---|
| KONTSEILUKO BOKALAK<br>VOCALES DEL CONSEJO | 1. ARANZADI Zientzia Elkar<br>2. EKIAN<br>3. EMAUS Fundación Social<br>4. Cristina Enea Fundazioa<br>5. HARITZALDE<br>6. KALAPIE<br>7. INGEBA<br>8. INGURUGELA-CEIDA<br>9. COAVN-GI<br>10. DONOSTIALDEA-EA21<br>11. Herritar norbanakoa 1<br>12. EGUZKI<br>13. Herritar norbanakoa 2<br>14. Herritar norbanakoa 4<br>15. SEO-DONOSTIA<br><br>Oharra/ Nota: Exposición de ASKEKINTZA |
| **ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA**<br>EXCUSARON SU ASISTENCIA | **DONOSTI-KAT, KULTURE STAR** |

| | |
|---|---|
| **UDAL TEKNIKARIAK**<br>PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL | **Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren ZerbitzuarenA burua**<br>Jefa del Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad<br><br>**Ingurumeneko zuzendaria**<br>Director de Medio Ambiente<br>**Ingurumeneko albaitaria**<br>Veterinaria de Medio Ambiente |
| **PARTAIDETZAREN DATUAK**<br>DATOS DE PARTICIPACIÓN | **Emakumezkoak /** Mujeres = **6**<br>**Gizonezkoak /** Hombres = **17** |
| **KONTSEILUKO IDAZKARITZA:**<br>SECRETARÍA DEL CONSEJO: | **Ingurumeneko Goi Mailako Lege teknikaria**<br>Técnico Superior Jurídico de Medio Ambiente<br>ingurumena@donostia.eus |

## Saioaren bilakaera:
## Desarrollo de la sesión:

### 1. Aurreko bileraren akta onartzea

Onartu egin da.

### 2. Gizarte Kontseiluari buruzko informazioa

EMAUSen ordezkaria Ingurumeneko Kontseiluaren ordezkaria da Gizarte Kontseiluan. Hala, bada, bileran azaldu du zer gai lantzen diren kontseilu horretan, bai eta bere ekarpenen nondik norakoak ere.

Kontseiluko lehendakariak adierazi duenez, komeni da Ingurumeneko Kontseiluak klima-aldaketaz duen iritziaren berri ematea Gizarte Kontseiluari.

### 3. Animaliei buruzko proposamenak

Askekintzaren ordezkari batek azaldu ditu gizakiek animaliei ematen dizkieten tratu txarrak. Argazki batzuk baliatu ditu horretarako. Udalari eskatu dio ez onartzeko animaliak festetan erabiltzea eta ez emateko diru laguntzarik animaliez baliatzen diren ekitaldietarako.

Ekologiako zinegotziak adierazi duenez, Askekintzak eta Festa Departamentuak aurreikusita dute bilera bat egitea.

Kontseiluko lehendakariak esan duenez, legea aplikatzen da eta, memento oro, animalien eskubideak errespetatzen direla bermatzeko albaitariak daude.

Bestalde, aditzera eman du Aquariumak ez duela diru-laguntzarik jasotzen eta animaliak baliatzen dituzten zirkuak debekatuta daudela. Izurriteei dagokienez, osasun publikoko irizpideak betetzen dira. Horretaz gain, Ulian ehizan ibiltzea debekatu behar dela uste du, eta halaxe jakinaraziko dio Aldundiari.

Eguzkiren ordezkariak proposatu du Udala interesatu gisa agertzea Ulian ehizan ibiltzea debekatzeko Aldundiak egiten dituen kudeaketetan.

Horretaz gain, zezenketak udalerriko festa-programatik kentzea proposatu du.

### 4. 2017. urterako planifikazioa

Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren Zerbitzuaren buruak 2017. urteko planifikazioa azaldu du. Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrean aztertu ziren gaiak azaldu ditu eta iragarri du Kontseilua ebaluatzeko galde-sorta batzuk bidaliko zaizkiela kontseiluko bokalei, beren iritzia jasotzeko.

“Herritar norbanakoa 4”-k gaitzetsi du Ingurumenak esku ez hartzea Hirigintzako erabakietan eta hiriko plangintzan. Haren ustez, bi sail horien arteko harremana protokolizatu beharko litzateke.

### 1. Aprobación del acta de la última reunión

Es aprobada.

### 2. Información sobre el Consejo Social

La representante de EMAUS y a su vez representante de Consejo de Medio ambiente en el Consejo Social explica que temas se tratan en este Consejo y en que consisten sus aportaciones.

El presidente del Consejo expone la conveniencia de trasladar la opinión del Consejo de Medio Ambiente respecto al tema del cambio climático al Consejo Social.

### 3. Propuestas en relación a los animales

Una representante de Askekintza expone el maltrato que sufren los animales por parte de los humanos; para ello se vale de unas fotos. Solicita al Ayuntamiento que no permita el uso de animales en fiestas y que no subvencione aquellos actos en los que participen los animales.

El Concejal de Ecología informa que está prevista una reunión entre Askekintza y el Departamento de Fiestas.

El presidente del Consejo aclara que se aplica la ley y que en todo momento existen personal veterinario que cuida por que se respeten los derechos de los animales.

Así mismo dice que El Aquarium no recibe subvención alguna y que los Circos con animales están prohibidos. En las plagas se siguen criterios de sanidad pública. También es partidario de prohibir la caza en Ulia y así se lo hará saber a la Diputación.

El representante de Eguzki propone que el ayuntamiento se persone como parte interesada en las gestiones para la prohibición de caza en Ulía que haga la Diputación.

El representante de Eguzki propone retirar las corridas de toros del programa de fiestas del municipio.

### 4. Planificación para el año 2017

La Jefa de Servicio de Salud Ambienta y Sostenibilidad expone la planificación para el año 2017. Comenta los temas que se trataron en la reunión permanente del Consejo. Anuncia, también, que para la evaluación del Consejo se enviarán unos cuestionarios a los y las vocales para recabar su opinión.

La ciudadana n.º 4 critica la falta de presencia de Medio Ambiente en las decisiones de Urbanismo y en planeamiento urbano. Apunta que se debería protocolizar la coordinación entre los dos departamentos.

Lehendakariak erantzun du bai KE2050 planari bai ordenantzei dagokienez elkarlan estuan ari direla Hirigintzarekin, baina, hala ere, badirela hobetu beharreko puntu batzuk.

## 5. 2018. urteko aurrekontuetarako proposamenak

Arkitektoen Elkargoaren ordezkariak proposatu du amiantoari buruzko egun bat antolatzea, herritarrei emateko arazo horren berri. Eraikitako Hiri Ondarea Babesteko Planaren berrikuspenean Ingurumenak parte hartzea ere proposatu du, babestutako eraikinetan hobekuntza energetikoak egin daitezke-eta.

Bilduren ordezkariak nabarmendu du amiantoaren mapa egiteko kontu-saila (100.000 euro) bere taldearen proposamena izan zela.

Aranzadiren ordezkariak KIUBa eta Sorospen Etxea “aterako” lituzke Ingurumenaren aurrekontutik.

Ingurumeneko zuzendariak azaldu duenez, sailaren aurrekontuen bilakaerari buruzko informazioa emango dute.

## 6. Eskariak eta galderak

Eguzki, Aranzadi eta Haritzalderen ordezkariek gogorarazi dute Mendizorrotzaren gaia erabaki gabe dagoela oraindik eta hurrengo kontseilu sektorial batean aztertzea proposatu dute. Bestalde, Haritzaldek informazioa eskatu du Cristina Enean botatako zuhaitzak direla-eta.

Lehendakariak horri buruzko txostena eskatuko dio Parke eta Lorategien atalari.

“Herritar norbanakoa 1”-ek eskatu du Uliako Plan Bereziaren gaia hurrengo kontseilu sektorial batean berriz aztertzeko eta Plan Berezi horretan ehizaren gaia bereziki lantzeko.

Bilera 20:30ean amaitu da.

El presidente responde que tanto con el plan KE2050, como con las ordenanzas se esta colaborando estrechamente con Urbanismo, aun así, hay puntos que habrá que mejorar.

## 5. Propuestas para los presupuestos de 2018

La representante del Colegio de Arquitectos propone realizar una jornada en relación al amianto para informar a la ciudadanía del problema. También propone que Medio Ambiente participe en la revisión del PPEPUC ya que es posible realizar mejoras energéticas en los edificios protegidos.

El representante de BiLDU aclara que la partida para el mapa de amianto (100.000 euros) fue una propuesta de su grupo.

El representante de Aranzadi “sacaría” del presupuesto de MA a la OMIC y a la casa de Socorro.

El Director de Medio Ambiente explica que se hará llegar información sobre la evolución de los presupuestos del departamento.

## 6. Ruegos y preguntas

Los representantes de Eguzki, Aranzadi, Haritzalde recuerdan que el tema de Mendizorrotz todavía está en el aire y propone que el tema se trata en un próximo Consejo Sectorial. Así mismo Haritzalde pregunta por la tala de arboles en Cristina Enea.

El presidente solicitará i informe al respecto a Parques y jardines.

El ciudadano nº 1 solicita que se vuelva a tratar el Plan Especial de Ulía en un próximo Consejo Sectorial y que se haga especial hincapié en el Plan Especial al tema de la caza.

20:30 Termina la sesión.